# HITZALDIAK

# OSTIRALA

## EUSKAL FEMINISMOAREN ERRONKAK

lauzpabost hamarkadak igaro dira euskal feminismoaren hastapenetatik. Hasiera hasieratik ulertu da patriarkatua ez dela egitura isolatua, baizik eta zapalkuntza nazionalarekin eta kapitalismoarekin gurutzatzen den botere sistema bat dela. Hortaz, nazio askapen mugimendua garen heinean, Euskal feminismoaren begiradatik hausnartu eta landuko da.

**JUNEX IARTZA**

**ELENE LOPETEGI**

**KIZKITZA GIL DE SAN VICENTE**

KULTUR ETXEA

10:30

## IPAR EUSKAL HERRIKO MUGIMENDU ABERTZALEAREN ERRONKAK AZTERGAI

Bi urte igaro dira bagiraren birfundazio prozesutik. Ordutik hona hainbat aurrera urrats eman ditu mugimendu abertzaleak eta urte honetan asko dago jokoan herriko bozak eta Hirigune Elkargoaren osaketa berria, besteak beste. Parez pare daukagun testuinguru berezi honetan Ipar Euskal Herriko Mugimendu Abertzalearen erronkak aztertzeko parada izango dugu.

**IZARRAITZ ZULUETA**

**ANE SAUTUA**

KULTUR ETXEA

10:30

## HAMARKADETAKO GAZTE BORROKAREN ESPERIENTZIA ETA IRAKASPENAK

Mende erdi igaro da 1976ko martxoaren 3ko Gasteizko sarraskitik. Garaiko testuinguru politikoaren inguruan jarduteko, gertakariak aztertzeko, eta haien etorkizunaren eta eskubideen alde altxatu zirenen aurkako erasoen inguruan hitz egiteko tartea izango da. Finean, atzera begiratu eta aurrera egiteko memoria ariketa kolektiboa egiteko tartea izango da.

**JON ORMAETXEA**

**HAIZEA KORTABARRIA**

**DAVID PLA**

GAZTETXEA

10:30

## EKINEZ INDEPENDENTZIA. IRABAZTERA GOAZ!

Amaiur Egurrola eta Maddi Urruzuno Ernaiko kideak zuzenean elkarrizketatuko ditu Naiz irratiak. Elkarrizketan gazte antolakundearen eta oro har gazteriaren egiteko eta erronken inguruan arituko dira. Era berean, mundu mailako testuinguruaren zertzelada batzuk kokatzeko eta bizi dugun garaia ezaugarritzen duten joera desberdinak aztertzeko tartea ere izango dugu.

**MADDI URRUZUNO**

**AMAIUR EGURROLA**

NAIZ GUNEA

12:30

## INPERIALISMO DIGITALA

Iraultza teknologikoa ez da etorkizuneko hipotesia, bizi dugu jada. Aurreikustekoa da gizartearen eta bizitzen guztizko moldaketa ekarriko duela: giza harremanak, lana, ekonomia, bizi proiektuak... aldaketa erabatekoa izango da. Geopolitikari ere sakon eragingo dio, botere harremanak guztiz birkonfiguratuz. Hitzaldi honetan iraultza teknologikoaren ondorio geopolitikoak aztertuko dira Euskal Herriko perspektibatik.

**NAHIA SANZO**

**JON AZKUNE**

KULTUR ETXEA

17:00

## IKASLERIA ABERTZALEA MARTXAN

Dagoeneko ia 40 urte igaro dira, abertzaletasuna eta hezkuntza propioa aldarri zituen ikasle antolakundea sortu zela. Ibilbide historiko honen ildo politikoaren oinarri berak aldarrikarazi zuen ikasleria martxan dagoela. Problematika komun bati aurre eginez, biharko Euskal Herria eraikitzeko pertsona kritiko eta askeak heziko dituen hezkuntza ereduaren aldarriak abertzalea izatea eskatzen du. Euskal

**GARAZI UBIRIA**

**MANU MARTINEZ**

**IKOITZ ARRESE**

**RUBEN NIETO**

KULTUR ETXEA

17:00

## EZKERKERIA: ERRADIKALISMO ERRETORIKOAREN NORAEZA

Iraultza teknologikoa ez da etorkizuneko hipotesia, bizi dugu jada. Aurreikustekoa da gizartearen eta bizitzen guztizko moldaketa ekarriko duela: giza harremanak, lana, ekonomia, bizi proiektuak... aldaketa erabatekoa izango da. Geopolitikari ere sakon eragingo dio, botere harremanak guztiz birkonfiguratuz. Hitzaldi honetan iraultza teknologikoaren ondorio geopolitikoak aztertuko dira Euskal Herriko perspektibatik.

**NIKOLE ZIARRUSTA**

**ANDONI OLARIAGA**

PROBALEKUA

17:00

GAZTEOK INDEPENDENTZIA GAZTEOK INDEPENDENTZIA